

EDITORIALA

Mehatxuak

Lan munduaren inguruan gaiak ez dira aspalditik baketsuak izan, ez eta neutroak ere. Izatez, bortizki indarrean dirauen klase borrokaren muinean dago, hain zuzen, lan harremanak gatazkatsuak izatea. Egun, makina erreformak patronalaren mesederako indar korrelazioa erabat desorekatu du eta kate produktzioan ahulentzat babes legeak desagertu dira. Aldatu da, eta askoz gehiago aldatuko da, negoziazio kolektiborako ezagutu dugun joko eremua eta prozedurak. Bereziki larria izan da aldaketa honetan aginte politikoek harturiko erabakiak, negoziazio kolektiboan ere beti zartaginaren kirtena patronalaren eskuetan utzi dutelarik. Lan harremanak aldebakarrez eta agintekiaz erabaki ditzan tresna guztiak eskaini zaizkio.

Hori gutxi omen eta gertuko patronalak mehatxuak eta izua hedatzeko ahaleginetan dabilta etengabe, jendearen beldurrari etekin lotsagabeak atera nahian. Patronalak, egungo hitzarmen sektorialen bukaera data aitzakiatzat harturik, aurpegia zuritu nahi du eta motzean hedatu nahi dituen soldata jaitzierak eta eskubideen urraketen errua sindikatuoi leporatu nahi digu, ELAri bereziki. Hemen go lan baldintzak estatukoaren parekoak izatearen arriskuaz edo Langileen Estatukoak arautzen dituenak izateko arriskuaz mehatxatzen gaitu patronalak. Hitzarmen horiek bere horretan bukatuko direla diote. Zein da eskaintzen duten alternatiba? Mahai gainean jartzen dituzten edukiak txintik esan gabe sinatzea, planteatzen duten soldata jaitzierak onartzea, lan egunak handitzea, malgutasunari men egitea, hitzarmenak ez aplikatzea...

Krisi garaian eta krisiaren bihar-ramunerako prestatu da patronala. Lege aldaketek emandako aukera guztiaz baliatzen ari da eta halaxe nozitzen ari gara milaka kaleratzeak, espedienteak, soldata jaitzierak... ematen direnean. Arkume zorroa jarri eta otso maltzur jokatzek ez du ibilbide luzerik. Guk aspaldi konturatuak ginen hortaz, eta ez diogu bide emango ez mehatxu ez eta beldurrari, gatazka badakar ere.

Realizará próximamente, junto a la Plataforma Sindical y Social, una nueva campaña contra los recortes en Euskal Herria

ELA NO CONVOCA HUELGA GENERAL EL 14-N

Amaia Muñoa, secretaria general adjunta, explica las razones que han llevado a ELA a no convocar huelga general el próximo 14 de noviembre, al tiempo que anuncia que se está trabajando en el seno de la Plataforma Sindical y Social para concretar una agenda propia de movilizaciones.

-ELA ha decidido no convocar Huelga General el 14 de noviembre. ¿Cuáles son las razones principales?

-Una de ellas es que hace poco más de un mes, el 26 de setiembre, ya hicimos una huelga general. Una huelga que valoramos muy positivamente y que era la quinta celebrada en Euskal Herria en tres años y medio para exigir un cambio radical en las políticas y denunciar los recortes en derechos laborales y sociales.

Asimismo, estamos convencidos de que próximamente el gobierno español y otras Administraciones (Gobiernos de Gasteiz, Iruña, Diputaciones...), procederán a hacer nuevos y duros recortes: en pensiones, desempleo, destrucción de empleo, prestaciones sociales, etc... Medidas a las que ELA, sin ningún género de dudas, continuará contestando tal y como ha hecho hasta ahora.

En definitiva, no es que creamos que no hay motivos para una huelga general sino que hay que medir los tiempos y las fuerzas porque esta pelea en la defensa de nuestros derechos va a ser larga y dura.

-Al margen de razones estratégicas, la convocatoria propiamente dicha del 14-N tiene otros elementos a considerar...



Amaia Muñoa, secretaria general adjunta de ELA

-ELA entiende que en el contexto actual toda movilización debe tener en cuenta algunos elementos importantes. Creemos que el movimiento sindical y social no debe excluir de crítica a quienes son responsables de hacer la política que interesa al poder financiero, al capital. Debemos exigir que se rectifiquen aquellas decisiones que, como la reforma de la Constitución (propuesta por el PSOE), han supuesto un antes y un después en la legitimación de la ortodoxia neoliberal.

Sigue en la página 2

MURRIZKETEN ETA ERREFORMEN ONDORIO NEGATIBOAK, GERO ETA NABARMENAGOAK

Hilabetez hilabete murrizketa eta erreforma ezberdinen ondorio kezka-garriak gero eta nabarmenagoak dira. Ezagutu berri diren urriko langabezia datuak beste adibide argia dira. Datuak ikuste hutsak hotzikara ematen du: langabe kopurua 219.071takoia izan da urrian Hego Euskal Herrian, aurreko hilean baino 5.255 eta 2011ko urrian baino 31.699 gehiago. Era honetara, langabezi tasa %16,6an kokatzen da, 27-EBko %10,6a baino 6 puntu altuago.

Egoera honen aurrean, ELAk hamai-ka aldiz salatu duena berretsi nahi du, ozen: datuek agerian uzten dute

murrizketa eta erreforma ezberdinek langabezia, ekonomi arazo, eta pobrezia gehiago dakartela. Gainera, ezin dugu ahaztu langabetuen %45,1ak ez duela inolako prestaziorik jasotzen Hego Euskal Herrian (%41,9 duela urte bete), eta %34ak soilik jasotzen du kotizaziopeko prestazioa (%35,6a 2011ko epealdi berdinean). Hau da, igo egiten da inolako prestaziorik jasotzen ez duen langabeen portzentajea, eta jaitsi jasotzen dutenen diru zenbatekoa.

ELAren komunikazio arduradun Patxi Agirrezabalak mobilizazioaren beharra azpimarratzen du egoera



2. orrialdean jarraitzen du



O que las movilizaciones en las que participamos no tienen por objeto dar apoyo a un inexistente *diálogo social*. No es coherente defender su utilidad mientras el Estado español es el lugar de la OCDE en el que más ha aumentado la desigualdad social.

-ELA tardó más de lo habitual en hacer pública su posición. ¿Por qué?

-Ha sido una decisión muy meditada, debatida y contrastada. Porque -no nos cansamos de repetirlo- por supuesto que hay motivos para una huelga general; por supuesto que seguimos apostando por la vía de la lucha y la movilización para cambiar las políticas; por supuesto que el nivel de indignación ante lo que está pasando es enorme... Por eso hicimos huelga el 26 de setiembre. Hemos tardado en decidir porque hemos querido analizar hasta el último momento los anuncios por parte del Gobierno de Rajoy de nuevas medidas y reformas. No habiendo elementos nuevos desde el 26 de setiembre, hemos creído que la decisión correcta era la de no convocar.

-Los convocantes del 14-N nos han atacado con argumentos como que se trata de una huelga europea, que nosotros votamos favorablemente a ella en el seno de la CES... ¿Qué hay de cierto?

-Nosotros no convocamos la huelga del 14-N pero no vamos a trabajar en contra de ella. No es nuestro estilo. Sin embargo, tampoco vamos a permitir falsedades sobre nuestra organización. El 14-N ni es una jornada de huelga a nivel europeo ni hubo votación en la CES.

En su intervención en la reunión del comité ejecutivo de la Confederación Europea de Sindicatos -internacional a la que pertenecen ELA, UGT, CCOO y USO-, el pasado 17 de octubre, nuestro secretario general, Txiki, apostó por la movilización en general como única vía con capacidad para obligar a cambiar las políticas, algo que llevamos defendiendo años, muchas veces casi en soledad ante la apuesta clara de otras organizaciones por el mal llamado *diálogo social*. Y también constató que

veníamos de una huelga reciente, el 26 de setiembre.

Por otra parte, aclarar también que la CES ha declarado el 14-N *Día de Acción y Solidaridad, a favor del empleo y contra las políticas de austeridad*, y los sindicatos miembros, en sus respectivos países, realizarán las acciones que consideren oportunas: paros, concentraciones, manifestaciones, enviar algún artículo de opinión o comunicado a los medios de comunicación... Cada organización es soberana.

Es evidente que la decisión de ELA de no convocar huelga el 14-N no va contra el proceso de movilizaciones que se va a desarrollar en diferentes países. Por el contrario, ELA se congratula de la extensión de movilizaciones por Europa a raíz del llamamiento de la CES.

Nuestra organización ya ha comunicado a la CES nuestra decisión de no convocar huelga el 14-N y continuar con nuestra propia estrategia de protestas y propuestas y calendario de movilizaciones, y lo han entendido perfectamente.

NUEVA CAMPAÑA CONTRA LOS RECORTES

-Hablando de estrategia propia y calendario de movilizaciones. La Plataforma Sindical y Social, de hecho, está ultimando una nueva campaña por el empleo y contra los recortes por toda Euskal Herria.

-Así es. ELA mantiene su apuesta por trabajar en la Plataforma Sindical y Social que convocó la huelga del pasa-

do 26 de setiembre. Hacemos una valoración positiva de la reflexión compartida, del trabajo realizado así como de la necesidad de mantener una agenda propia en Euskal Herria de propuestas alternativas y de movilización.

En este sentido, está prácticamente decidida la campaña de movilización que vamos a desarrollar la última semana de noviembre. Creemos que tenemos que poner en el centro de la movilización la cuestión del empleo, por la gravedad de la situación. Unidas al empleo se van a trabajar también otras cuestiones derivadas de los recortes, como las prestaciones sociales, la fiscalidad, los desahucios, etc. Llamamos a nuestra militancia a tomar parte activa en esta campaña y en todas las movilizaciones que seguiremos llevando a cabo en el futuro contra el ataque brutal e incesante que estamos sufriendo.

ELA busca con la movilización que Instituciones y partidos atiendan al clamor social que está en la calle: al desempleo creciente, a la pobreza, a los desahucios... Nos movilizamos para colocar los intereses de las personas por encima de la dictadura del capital.

Sin embargo, constatamos que, ni en el Estado español ni en Euskal Herria, Instituciones y partidos se hacen eco de esta exigencia; al contrario, prestan su apoyo al capital rompiendo todos los equilibrios y, más allá de la estricta competencia electoral, desgraciadamente no existen políticas que, en la práctica, rompan con el dogma neoliberal.

"ELAk argi utzi nahi du bere erabakia inondik ere ez dela ulertu behar Europako hainbat estatutan garatzen ari den mobilizazio prozesuaren aurkako zerbait bailitzan. Hori ez da gure asmoa, ezta gutxiago ere. Gure sindikatuak mobilizazioaren alde egiten du, hori baita politika aldarazteko aukera ematen duen bide bakarra"

iraultzeko tresna eraginkorrena bezala. "Begi-bistan dago administrazio publikoen murrizketa ezberdinek eta lan erreformek desenplegu gehiago, eta beraz, zailtasun eta pobrezia gehiago dakartela. Mobilizazioarekin soilik bukatu ahal izango dugu murrizketa hauekin eta politiketan norabidea aldatu, egoera hobea batetara eraman gaitzaten".

ZERBITZU PUBLIKOAK DESEGITEKO ETA ENPLEGUA SUNTSITZEKO URRATS BERRIA

Gauzak nahikoa gaizki ez baleude, administrazio ezberdinek egoera are eta gehiago okertzeko asmo irmoa dutela dirudi. Urriaren 31n Espainiako gobernuak bidea ireki zion herri-administrazioek urteko 20 egun ordainduz kaleratzeak egiteko aukera izan dezaten. Agirrezabalak salatzen duenez, zerbitzu publikoak eta ongizate-estatua eraisten jarraitzeko aitzakia perfektua aurkitu dute: defizit publikoa murriztu beharra. "Horretarako Konstituzioa ere aldatzera iritsi dira. Administrazioak etengabe ari dira murrizketak egiten, betiere zerbitzu publikoak ahultze aldera. Azken hiletan, gainera, arlo honetan suntsitu diren lanpostuak arlo pribatukoak baino gehiago izan dira. Erreforma laboralak erregulazio espedienteak -hots, kaleratze kolektiboak- egitea ahalbideratzen zuen, herri-administrazioen mendeko erakunde edota sozietate merkantil guztietan. Orain Madrilén erabakitako araudiak bide horri eusten dio eta are gehiago errazten ditu kaleratzeak".

"Espainiako gobernuak finantza arazoak zerbitzu publikoetako langileak kaleratuz konpondu nahi ditu. Behin-behineko langileak kaleratuz hasi ziren. Orain, lege-dekretu hau erabiltzen dute laboralak botatzeko eta, etorkizunean, administrazioaren erreforma baliatuko dute zerbitzu publikoak oraindik gehiago murrizteko. Aldaketa honek agerian uzten du Rajoyren gobernuari bost axola zaiola enplegua suntsitzea, publikoa nahiz pribatua dela ere".

AURREKONTUEK EGOERA ARE ETA GEHIAGO OKERTUKO DUTE

Ildo honetan, ELAko komunikazio arduradunak gogor salatzen ditu urriaren 23an Finantzen Euskal Kontseiluan EAJ, Bildu, PSE-EE eta PP alderdiek erabakitako akordioak. Bertan adostu zenez, 2013ko gastua 2012koa baino 823 milioi euro txikiagoa izan beharko du. "Jaurlaritzaren eta Aldundien datorren urterako aurrekontu murrizketak egoera okertu besterik ez du egingo. Adostutakoak zera suposatuko du: Administrazioen murrizte agendarekin jarraitzea; honek ekonomia errearen eta enpleguaren gainbehera eragiten du eta desberdintasun sozialak zein pobrezia areagotu".

Nafarroan ezin esan egoera hobea denik. Inondik inora. "Nafarroako gobernuak aurkeztutako aurrekontuak eta neurri fiskalak porrot egin duten politiketan jardutea suposatzen dute. 2013ko aurrekontuak murrizketa garrantzitsuak dakartza. Politika hauek

egoera ekonomikoa kaltetzen dute, eta eragin latza dute gizartean: langabezia gehiago, osasun, hezkuntza, gizarte zerbitzu, etb. publikoen kalitatearen okertzea eta pobrezia gehiago".



CONCENTRACIÓN EN DEFENSA DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS

ELA está realizando numerosas movilizaciones en defensa de los servicios públicos. En la imagen de arriba se puede ver la concentración realizada frente a la delegación del Gobierno español en Gasteiz, para denunciar, entre otras cosas, la actitud de su delegado, Carlos Urquijo.

Gizarte politiken arduradun Mikel Novalek Espainiako Gobernuak pentsioen inguruan igorri berri dituen txostenak aztertu eta bere asmoetaz ohartarazten du

“ESPAINIAKO GOBERNUAK ERRETIRO AURRERATUA ERAGOTZI NAHI DU”



ELA, junto con LAB, STEE-EILAS, EHNE e Hiru, realizó una huelga general el 27 de enero del 2011 en contra de la reforma del sistema de las pensiones acordada por el Gobierno del PSOE, UGT y CCOO. Ahora, vuelven a la carga contra nuestros derechos.

■ Espainiako gobernuak bi txosten igorri zizkion urriaren 31n Kongresurari. Lehendabizikoa erretiro aurreratu eta partzialari buruzkoa (txanda-kontratu); bigarrena erretiro-pentsioa eta jarduera ordaindu bat bateragarri ote direneko auziari buruz. ELAko gizarte politiken arduradun Mikel Novalek salatzen duenez, Rajoyren gobernuaren helburua pentsioetan gutxiago gastatzea; “betiko kontua da, gure eskubideetatik murriztu nahi dute ondoren gure dirua banketxei emateko”, gaineratzen du.

-Zein da pentsioei eragiten dien neurri hauen helburua?

-Prozedura ezaguna da. Lehenik gobernuak agiri batzuk egiten ditu. Bertan egoeraren diagnostikoa eta erreformaren ildo nagusiak jasotzen dira. Gero Kongresuko Batzordeak erabakiak hartzen ditu, eta hor PPK gehiengo absolutua dauka. Gainera, gauza jakina da legea azkar egin nahi dutela, oraindik epeak zehaztu ez badituzte ere.

Txostenak hitzez-hitz jasotzen duenez gobernuaren asmoa honakoa da: “erretiro aurreratu eta partzialaren aplikazioa mugatzea, pentsio-sistema iraunkorragoa eta bideragarriagoa izan dadin”.

-Hau da, erretiro aurreratua eragozteak, ez?

-Bai, hori da. Kontuak kontu, gobernuak emandako datuen arabera ez da ikusten erretiro aurreratua zaildu behar denik. Erretiro aurreratu hartzen duten langileen portzentajea asko ari da murrizten. Hain zuzen, 2006an erregimen orokorreko 100 erretiro altatik 60 aurreratuak baziren, 2011n kopuru hori 50,7ra jaitsi zen. Hau da, murrizte ikusgarria gertatu zen.

Bestalde, erretiro partzialaren bidez jubilatzen diren pertsonen portzentajea

ere jaisten ari da. 2011n %12,93 ziren, eta aldiz 2006an kopurua %19an zegoen.

Laburbilduz, 2011 urtean batez besteko erretiro adina 63,47 urtetan zegoen, hots, 2006an erretiratu zirenen 62,92 urteko batez bestekoa baino urte erdi gehiago.

-Egindako aldaketa proposamen nagusiak erretiro aurreratuaren eta partzialaren ingurukoak direla diozu. Zertan egikaritzen dira?

-Erretiro aurreratu motak aldatzea proposatzen da, hots, erretiro aurreratu lan-harremana borondatez kontra iraungitzen denean (krisi egoerak edo enpresa itxierak), edota langileak berak amaitzea nahi duenean.

Aldaketa egiteko proposamen nagusiak hiru lirateke. Lehena erretiro adina atzeratzea. Orain arte lan-harremana iraungitzeko borondatez kontrako zergatiak egonez gero 61 urte izan behar dira, eta borondatezko iraungitzean, berriz, 63.

Bigarrena exigitzen den kotizazio-aldia luzatzea da. Gaur gutxienez 33 urtez kotizatu behar da, aparteko pagei dagokien zati proportzionalak aintzat hartu gabe.

Azkenik, pentsioaren zenbatekoari ezartzen zaizkion koefiziente murriztaileak gehitzea egongo litzateke. Orain arte langileari erretirorako legezko adina betetzeko falta zaion hiruhileko edo hiruhileko-zatiki bakoitzeko ehuneko 1,875eko koefiziente murriztailea aplikatzen zaie 38 urte eta 6 hilabete baino gutxiago kotizatu dutenei, eta ehuneko 1,625a, 38 urte eta 6 hilabete baino epe luzeagoan kotizatu izan dutenei.

Gainera, bi kasuetan, koefiziente murriztaileetan egiten diren aldaketak salbuespenik gabe erretiro aurreratu

hartzen duten guztiei aplikatuko zaizkie, edozein dela ere abiapuntua: enplegua erregulatze espediente, hitzarmen kolektiboa zein aurrez sinatutako akordioak.

Beste asmo bat enplegatu publikoei erretiro aurreratu hartzeko aukera galaraztea da; hau 2013ko urtarrilean sartuko da indarrean.

-Gobernuaren txostena ere erretiro partzialaren inguruan mintzo da. Zer jasotzen da bertan?

-Murrizteko asmo berarekin, erretiro partzialari buruz honakoa proposatzen da:

■ Pentsiodun izateko adina atzeratzea. Orain arte 61 urtetik aurrera erretiro partziala hartzeko aukera zegoen.

■ Erretiro partziala hartu duen langilearen lanaldia luzatzea. Orain arte %25 eta %75 bitartekoa zen.

■ Txanda-kontratuaren iraupena luzatzea. Kontratuaren iraupena ordezkaturako langileari legezko erretiro adinera iristeko falta zaion denboraren arabera izan ohi da.

■ Eskatzen den gutxienezko kotizazio-aldia luzatzea, hots, 30 urtetik gora kotizatu beharra.

■ Pentsioaren zenbatekoa murriztea. Erretiro partzialari ez zaio koefiziente murriztailerik aplikatzen.

-Pentsioen kontrako eraso berri eta larri baten aurrean gaude, beste behin...

-Bai, eta ELAK argi utzi nahi du ez dituela murrizketa berri hauek ez ulertzen ez babesten. Prestazio-sozialak murrizteko ahalegin berri baten aurrean gaude, ondoren diru hori bankuen erreskateari bideratzeko, inolako lotsarik gabe. Egoera honen aurrean erreforma hau –eta aurrekoak ere, noski– bertan behera uztea exigitzen dugu.

Bestalde, pentsioei buruzko erabakiak Hego Euskal Herrian har daitezela exigitzen dugu, baita kotizazio sozialak eta pentsioak bertan kudeatzea ere.

Espainiako Gobernuaren neurri hauek gizartearen txirotze orokorrean sakontzea besterik ez dute eragingo. Pentsioak murriztea administrazioek biztanleria oro har pobretzeko egiten ari diren politikaren beste urrats bat da.

VALORACIÓN DE ELA DEL INFORME DEL GOBIERNO SOBRE LA JUBILACION ANTICIPADA Y LA JUBILACION PARCIAL

1. ELA rechaza estos nuevos y graves recortes al sistema de pensiones que, aunque no se concretan en detalle, demuestran la voluntad del gobierno de endurecer el acceso a la jubilación anticipada y reducir las pensiones de quienes accedan al sistema por esta vía.

2. El calendario y la concreción de los recortes los decidirá el gobierno. Un gobierno que tiene mayoría absoluta en el Congreso, por lo que es evidente que el resultado final va a ser el de dar cobertura a la propuesta.

3. El gobierno menciona que la Comisión Europea ha recomendado también abordar la cuestión del factor de estabilidad. ELA quiere recordar que dicho factor fue recogido en el acuerdo firmado por CCOO y UGT con la CEOE y el gobierno de Zapatero para retrasar la edad de jubilación a los 67 años y rebajar las nuevas pensiones. El factor de estabilidad supuso un cheque en blanco para que el gobierno de turno modifique "automáticamente" cuestiones muy importantes, como son la edad legal de jubilación, o la cuantía de las nuevas pensiones (número de años que se tienen en cuenta, fórmula de cálculo de la pensión...). ELA, junto a otras organizaciones sindicales, rechazó ese acuerdo con una huelga general en Hego Euskal Herria. Queda claro que las modificaciones de las pensiones que el gobierno va a aprobar van a ir más allá de la modificación de la jubilación anticipada, a pesar de que esas otras cuestiones se hayan dejado fuera de estos documentos.

4. Rebajar las pensiones supone un nuevo paso en la política de empobrecimiento generalizado de la población que está siendo llevada a cabo por las distintas administraciones. Éstas no tienen empacho en recortar las prestaciones sociales a la vez que dan decenas de miles de millones de euros a la banca.

5. ELA exige un cambio radical de las políticas que se aplican. En concreto, en relación a las pensiones, reclamamos que se retiren los documentos enviados al Congreso y que se dé marcha atrás en las reformas aprobadas en los últimos años. Además, exigimos que las decisiones sobre las pensiones se adopten en Hego Euskal Herria, y que las cotizaciones sociales y las pensiones se gestionen aquí.

● Greba Gipuzkoako papergintzan, hitzarmenaren alde

Urriaren 24ean Lan Harremanen Kontseiluak Donostian duen egoitzan Gipuzkoako Pasta, Paper eta Kartoiaren hitzarmenaren negoziazio mahaia elkar-tu zen. ELAk balorazio ezkorra egiten du sektorean ordezkariak duten sindikatuak –ELA, LAB, CCOO eta UGT– eta Adegik izan zuten bileraren inguruan. Izan ere, patronalaren jarrera dela-eta blokeatutzat jo liteke negoziatio mahaia. Negoziazioak iraun duten hila-beteetan sindikatuak mugimendu ugari egin dituzte helburu argi batekin: akordioa lortzea. Hala ere, Adegiren jarrera mugiezina dela ikusirik sindikatuak grebara jotzea erabaki dute. Lehen greba egunak azaroaren 29an eta 30ean izango dira. Hurrengoak, abenduan –1, 3 eta 4–. Gainera, sektoreko enpresetan batzarrak egiten ari dira, mobilizazio egutegi zabalago bat adostu asmoz.

● La gran mayoría de la plantilla de Guardian secunda la huelga

La plantilla de Guardian Llodio inició el 23 de octubre una huelga indefinida en defensa del convenio colectivo. La protesta está siendo secundada por la gran mayoría de los trabajadores y trabajadoras. El comité denuncia que la dirección no ha presentado ningún documento que justifiquen los despidos filtrados –120 trabajadores/as–. Mientras tanto, miembros del comité de empresa mantienen un encierro para exigir a la empresa a que se sienta a negociar.



● ELAk bost enpresa salatu ditu, legez dagokiena baina ordu gehiago zabaltzeagatik

ELAk Carrefour, Simply Sabeco, Leroy Merlin, Kiabi eta Bricodepot enpresen aurkako salaketa jarri du Nafarroan, legez ireki dezaketen baina ordu gehiago zabaltzeagatik. Nafarroan komertzio batek astean gehienez 72

orduz ireki ditzake bere ateak; bost enpresa horiek kopuru hori nabarmen gaintzen dute. Uztailean Espainiako Gobernuak merkataritzaren inguruko lege-dekretu berria atera zuen. Bertan sektoreko enpresei ordu gehiago zabaltzeko eskubidea aitortzen zitzaion. ELAk gogorarazi nahi du Nafarroak gai horren inguruko eskumenak dituela, eta, beraz, Espainiako Gobernuaren lege-dekretu hori ez dagoela Nafarroan indarrean. ELAren ustez, salatu dituen bost enpresek lege iruzurra egiten dute. Izan ere, gurean baliorik ez duen dekretu bat inposatzen dute legez ireki dezaketen ordu kopurua gaintzeko.

● Gerdau-Sidenor despide a más de un centenar de eventuales

ELA denuncia el continuo chantaje de la dirección de Gerdau-Sidenor a las y los trabajadores de la planta de Basauri. La empresa ya ha rescindido los contratos de más de un centenar de eventuales en 2012. Este ajuste de plantilla se ha sucedido tras varios trimestres de récords de producción, desoyendo por completo la petición de Inspección de Trabajo de revisar dichos contratos eventuales por irregularidades. Por otra parte, ELA recuerda la actitud de UGT, CCOO y USO, que con su firma eliminaron la obligación que existía de hacer fijos a los relevistas.

● CIE Automotiviek lan erreforma aplikatzen du Legazpin, etekin handiagoak lortu nahian

CIE Legazpik Enplegu Erregulazio Espedientea jarri zuen indarrean urriaren 22an, arrazoi ekonomiko, produktibo eta antolakuntzari buruzkoak argudiatuz. EEEak lantegian diharduten 244 pertsoneri eragingo die, 2013ko abenduaren 31ra arte. CIE Legazpik 51,3 milioi euro fakturatu zituen 2011n, eta zerga osteko etekina 2,5 milioi eurokoa izan zen. Aurten 47 milioitik gora saltzea espero du, 2010eko kopurua baino handiagoa, eta irailaren 30ean 2 milioi euroko EBITDA zeukan. ELAren iritziz, enpresak lan erreforma aplikatu du EEE hau ezartzeko. Zuzendaritzak erabaki honen zergatiak ezin izan ditu behar bezala azaldu kontsulta epealdian, araudia urratuz.

● El Ayuntamiento de Gasteiz despide a 40 trabajadores/as

El Ayuntamiento de Gasteiz ha decidido unilateralmente la reversión de los

servicios del 010 y Oficinas de Atención al Ciudadano. Esta decisión supone la rescisión del contrato renovado en julio del 2012 con la empresa subcontratada SIC y el despido del personal que viene prestando este servicio.

● Contra los despidos en Cementos Lemona

Cientos de personas participaron el 16 de octubre en la manifestación convocada por la plantilla de Cementos Lemona en protesta por el ERE de extinción planteado, que supone el despido de 34 trabajadores/as. El comité de empresa, por otra parte, ha convocado paros en protesta por el ERE. Además critica la actitud de UGT y CCOO, que son quienes han llevado la negociación del expediente a Madrid. La plantilla de Cementos Lemona se encuentra acampada frente a la empresa en contra de los despidos.

● Hutchinson/Total plantea el cierre de Catelsa en Oiartzun

Igor San José, responsable de ELA-hainbat en Oarso-Bidasoa, denuncia que Hutchinson/Total plantea cerrar la planta de Catelsa en Oiartzun. "Preten-de que entremos a negociar salidas indemnizadas, cuando lo que debería estar en discusión sería la viabilidad de la empresa y buscar la forma de mantener los puestos de trabajo de esos 61 trabajadores. Desde que la multinacional adquirió Catelsa se ha producido una pérdida de empleo –no hace mucho la plantilla era de 150 personas–, así como una deslocalización gradual".

● Alestis pretende despedir a 62 personas en Gasteiz

El grupo Alestis quiere despedir a 62 de los 231 trabajadores y trabajadoras que componen las plantas que el Grupo tiene en Gasteiz –Jundiz y Miñano–. Para ello Alestis ha diseñado un 'Plan de viabilidad' a su medida, a fin de justificar dichos despidos. ELA denuncia que la intención de la dirección de Alestis es desprenderse de carga de trabajo desviándola a las plantas de Cadiz, en un claro proceso de desmatelación de las plantas de Jundiz y Miñano.

● Paros de los jardineros de Bilbao

Los trabajadores/as del servicio de jardinería del Ayuntamiento de Bilbao, pertenecientes a la UTE Bilboko Lorate-

giak, han convocados paros de dos horas los martes y jueves de noviembre en demanda del convenio colectivo. La plantilla denuncia la falta de voluntad negociadora de la subcontrata que pretende imponer un nuevo convenio sin tener en cuenta el anterior acuerdo.

● No al expediente de Bridgestone

ELA rechaza el Expediente de Regulación de Empleo presentado por Bridgestone. El ERE plantea 216 despidos en las plantas de Basauri y Usansolo, cuando la empresa acaba de declarar ganancias de más de 1.130 millones de euros en los nueve primeros meses del año –41,4% más que en el mismo período del 2011–. ELA anuncia movilizaciones y exige la retirada del ERE.

● Acuerdo en Punt Roma

ELA ha llegado a un acuerdo con la dirección de Punt Roma sobre el convenio de empresa para los centros de Bizkaia. El acuerdo supone cerrar la puerta a la reforma laboral. El acuerdo tiene una vigencia de cinco años (2009-2013) y recoge subidas salariales superiores al IPC y una reducción gradual de la jornada laboral, entre otros muchos aspectos positivos.

● El ERE presentado por CIE Inyectametal es injustificado

El Juzgado de lo Social Número 2 de Bilbao ha dado la razón a ELA en la demanda que interpuso contra la empresa CIE Inyectametal de Abadiño. El fallo estima íntegramente la demanda de ELA al considerar en la actuación de la empresa "una evidente mala fe y la total ausencia de una voluntad real de conseguir un acuerdo". El Juzgado califica, de este modo, como injustificado el ERE de suspensión presentado en abril y que afectaba a 246 personas.

● ELA rechaza la detención y entrega de Aurore Martin

ELA rechaza la detención y posterior entrega a la Guardia Civil de la militante abertzale Aurore Martin realizada por el estado francés. Esta acción constituye un aval inaceptable al Pacto Antiterrorista que orienta la política represiva de los gobiernos españoles y que el nuevo gobierno francés, lamentablemente, hace suyo. Por otra parte, ELA apoyó la manifestación del 10 de noviembre en Baiona para exigir un cambio de la política penitenciaria.

www.ela-sindikatua.org

ELA **astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado
nº 08/207